

4 / 07

Irizpena

KANPOKO PREBENTZIO
ZERBITZUEN ETA PREBENTZIO
SISTEMAREN AUDITORIA-
JARDUERA GARATZEKO
ESPEZIALIZATUTAKO
PERTSONA EDO ERAKUNDEEN
ERREGISTROA SORTZEN ETA
ARAUZEN DUEN

Dekretuaren Proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2007ko ekainaren 21a



C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico
y Social Vasco

© Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía, 35-1. solairua
48009 Bilbo
www.cesvasco.es

Maketazioa eta fotomekanika: Argia Servicios Gráficos, S. L.

Inprenta: Gestingraf, S. A. L.

Lege Gordailua: BI-1216-07

Irizpena

I AURREKARIAK

2007ko maiatzaren 14an, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren idazkia sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean; bertan, irizpena eskatzen zen kanpoko prebentzio zerbitzuen eta prebentzio sistemaren auditoria-jarduera garatzeko espezializatutako pertsona edo erakundeen erregistroa sortzen eta arautzen duen dekretu proiektuari buruz, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Dekretu proiektu horren bidez, gai honetan eskumena duten Autonomia Erkidegoek Erregistro bat sortu behar dute, hain zuzen ere, prebentzio-sistema gisa baimendu diren erakunde espezializatuak bai eta prebentzio-sistemen auditoriak edo ebaluazioak egiteko baimena duten pertsona edo erakunde espezializatuak inskribatzeko, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 28. artikuluan jasota dagoen bezala; eta hori guztia Autonomia Estatutuaren 12. artikulua arabera Euskal Autonomia Erkidegoak lanaren alorrean dituen betearazteko eskumenez baliatuz eta laneko legeria betearazteko eskumenaz baliatzeko beharrezko diren zerbitzuak ordenatzeko eta antolatzeko auto-antolakuntza eskumenaren arabera. Errege Dekretu honek Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen du eta alor honetan oinarritzko lege-esparrua osatzen duen Laneko Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legea garatzen du.

Maiatzaren 14an, Batzordeko Osoko Bilkurako kide guztiei eman zitzairen dokumentua, euren proposamenak eta iritzia emateko; eta horien gaineko informazioa eman zitzaion dagokion Lan Batzordeari, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araudian jasota dagoenaren arabera.

2007ko ekainaren 8an, Gizarte Garapenerako Batzordeak lan-batzarra egin zuen Irizpen Aurreproiektuari buruzko lehenengo proposamen bat eztabaidatzeko; horretan, Irizpen Proiektu hau onartzea erabaki zuen eta Euskadiko EGABen Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion 2007ko ekainaren 21ean.

II EDUKIA

Kontsultatzeko aurkeztutako Dekretu Proiektuaren testuak Sarrera, 7 artikuluko, Xedapen Iragankor bakarra eta bi Azken Xedapen ditu.

Sarrera

Dekretu Proiektuaren Sarrerak testu honen xede den Erregistroa sortzeko eta arautzeko eskumenen eta legeen testuingurua azaltzen du; hori, Laneko Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legeak ematen du, hain zuzen ere, lege horrek enpresa alorreko prebentzioa antolatzeke modalitateetako bat bezala egituratzen ditu prebentzio-zerbitzuak; eta, horrez gain, Lege horrek ezartzen duenez, Lan Agintaritzak jarduera hori garatu nahi duten erakunde espezializatuak egiaztatu behar ditu, auditoriak egin behar dizkio eta prebentzio zerbitzuen auditoria-jarduera garatu nahi dutenak baimendu behar ditu. Prebentzio Zerbitzuen Araudia, aldaketekin, onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak eta 1997ko ekainaren 27ko Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren Aginduak Legea arauz garatzen dute, eta kanpoko prebentzio zerbitzuetara eta horien auditoriara zuzendutako erakundeak ziurtatzeko eta baimentzeko baldintzak eta prozedurak arautzen ditu; gainera, Errege Dekretuaren 28. artikuluko zehatz aurreikusten du gai honetan eskumena duten Autonomia Erkidegoek Erregistro bat sortzea, bertan erakunde ziurtatuak eta baimenduak inskribatzeko. Aztertutako Dekretu Proiektuaren xede den Erregistroa sortzeko eta arautzeko, hauek dira lege-oinarriak: Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak bere 12. artikuluan lanaren alorrean aitortzen dituen betearazteko eskumenak eta hori betetzeko beharrezko diren zerbitzuen auto-antolakuntza ahalmenak.

Hauxe da Erregistroa sortzearen helburua: batetik, herritarrei zerbitzu bat ematea, kanpoko prebentzio zerbitzuen eta auditorien gaineko informazioa emanik (horiek EAEn eskainiko dituzte euren zerbitzuak, behar bezala ziurtatuta eta baimenduta), eta, bestetik, informazio horri administrazio bermea ematea, Erregistro Publiko baten bidez. Erregistroa administrazio-eraginkortasun arrazoiengatik arautuko da.

Xedapenen Atala

1. artikuluko Erregistro bat sortzea xedatzen du, eta hori Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzara atxikitzea. Artikuluak ezartzen du, batetik, Erregistro publikoa izan behar dela, eta, bestetik, bere irismen materiala kanpoko prebentzio zerbitzuetan eta prebentzio sistemen auditorian espezializatutako pertsona eta erakundeetan zehaztu behar dela, berdin izanik euren jarduketa-eremua,

instalazio nagusiak Autonomia Erkidegoan badituzte, bai eta instalaziook beste Autonomia Erkidegoetan izanik Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten badute. Amaitzeko, ezartzen du datu pertsonalak automatizatzekeo tratamendua Datu Pertsonalak Babesteko Legearekin bat etorrita egingo dela.

2. artikulua Erregistroa bi ataletan egituratzen du: A atala, behin behineko zein behin betiko izaeraz EAEn kanpoko prebentzio zerbitzu gisa jarduteko ziurtatutako erakunde espezializatuei buruzkoa; eta B atala, behin behineko edo behin betiko izaeraz EAEn prebentzio sistemen auditoria-jarduera garatzeko ziurtatutako erakunde espezializatuei buruzkoa. 2.2 artikuluan, Erregistroan jaso beharreko datuak zehazten dira.

3. artikulua xedatzen da Erregistroan inskribatuz gero Prebentzio Zerbitzuen Araudiak eta gai horrekin zerikusia duten arauak ziurtatutako baldintzak eta prozedurak bete beharko direla. 3.2 atalaren arabera, hauek inskribatu behar dira: EAEko Lan Agintaritzak kanpoko prebentzio zerbitzu gisa ziurtatutako erakunde espezializatuak, berdin dela horiek jarduteko duten eremu geografikoa; beste Autonomia Erkidego batzuetako Lan Agintaritzek ziurtatutakoak, EAEn lan egiten badute; EAEko Lan agintaritzak prebentzio sistemetan auditoriak edo ebaluazioak egiteko ziurtatutako erakundeak eta pertsonak, berdin dela horiek jarduteko duten eremu geografikoa; eta beste Autonomia Erkidego batzuek ziurtatutakoak, EAEn jarduten badute, bai eta Lan Agintaritza eskudunak emandako ziurtapen edo baimenen baldintzen aldaketak.

4. artikulua erregistroan inskribatzeak dituen eraginak ezartzen ditu, hain zuzen ere, emandako datuen publikitatea, eta ukatu egiten du izaera eratzailerik izan dezakeenik, ez duelako ekintza eta datuak jasota geratzea beste eskubiderik ematen.

5. artikulua inskripzio prozedura arautzen du, eta jasotzen du kanpoko prebentzio zerbitzuak emateko eta auditoriak eta ebaluazioak egiteko ziurtatutako eta baimendutako (hurrenez hurren) erakunde espezializatuak ofizioz inskribatuko direla erregistroan. EAEn jardun arren aurreko puntuan aipatutako helburu berberarekin beste Autonomia Erkidego batzuek ziurtatu eta baimendu dituzten erakunde espezializatuak dagokion Lan Agintaritzaren baimenaren Ebazpenaren arabera inskribatuko dira.

6. artikulua hauek xedatzen ditu: erregistroko idazpenen modalitateak; inskripzioak eta kantzelaioak; nahitaez inskribatu beharreko egintzak; inskripzioak ofizioz kanzelatzea administrazio-espeditentean emandako ebazpenaren edo prozedura judizialaren bitartez; eta ofizioz edo alderdiak eskatuta idazpenak jasotzea.

7. artikulua ezartzen du erregistro-publikitatea ziurtapenaren edo informazio-oharraren bidez egingo dela, eta hori Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendariak eman beharko duela. Erregistroko datu eguneratuak aldian-aldian argitaratuko dira Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren *web* gunean.

Xedapen Iragakor Bakarrean ezartzen denez, Dekretua indarrean sartu orduko Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzak behin betiko ziurtatutako erakunde espezializatuak ofizioz inskribatuko dira, eta bi hilabeteko epean ofiziatuko dira ez balira beharrezko datu guztiak edukiko.

Azken Xedapenetatik Lehenengoan, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuari baimena ematen zaio Dekretua betetzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken Xedapenetatik Bigarrenak dakarrenez, Dekretua EHAA-n argitaratu eta bi-haramunean sartuko da indarrean.

III GOGOETA

Kontu hartzekoak

Laneko Arriskuen Prebentzioaren alorreko oinarritzko legeria, azaroaren 8ko 31/1995 Legea, hori garatzeko araudia, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua (Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duena) eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren 1997ko ekainaren 27ko Aginduak zehatz-mehatz arautzen dute kanpoko prebentzio zerbitzuen araubidea, enpresaren alorrean prebentzioa antolatzen tresna gisa; gainera, xedatzen duenez, kanpoko prebentzio zerbitzuen jarduerak garatu nahi duten erakunde espezializatuak zein prebentzio zerbitzuen auditoria-jarduerak garatu nahi dutenek ziurtapen eta baimen bat beharko dute (hurrenez hurren), hain zuzen ere, lan agintaritzaren eskudunak emandakoa. Gainera, ziurtapenen edo baimenen baldintzak ere ezartzen ditu, bai eta horren mantentze-lanen eta erabili beharrezko prozeduraren konprobazioarenak. Legegileak sortutako araubide juridikoa osatzeko Autonomia Erkidegoen Erregistro bat sortu behar dute, hain zuzen ere, Batzorde honek irizpena eman dezan aurkeztu den Dekretu Proiektuaren xede den Erregistroaren erakoa (Prebentzio Zerbitzuen Araubidearen 28. artikuluan aurreikusitakoa); bertan, prebentzio sistemaren kanpoko prebentzio zerbitzuak emateko eta auditoria egiteko ziurtapenak eta baimenak lortzen dituzten erakundeak eta pertsonak inskribatuko dira.

Eusko Jaurlaritzak, eta, zehatz esanda, Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzak (OSALANek dituen funtzioak baztertu gabe) bete ditu hamarkada honetan, araudi honek Lan Agintaritzari esleitzen dizkion funtzioak, eta, titulu horrekin, ziurtapenen eta baimenen prozedura kudeatzen du, baina orain arte kanpoko prebentzio zerbitzuen eta prebentzio sistemaren auditoria-jarduerak garatzeko espezializatutako pertsona edo erakundearen Erregistrorik sortu gabe; eta, izan ere, laneko arriskuen prebentzio zerbitzuen araudiaren arkitektura juridikoan lege-tresnetako bat da laneko arriskuen prebentzioaren alorrean.

Testuinguru horretan, Euskadiko EGABek positiboki baloratu du laneko segurtasunaren alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritza Sailak Erregistroa sortzera bideratutako arau-ekimen hau abiatu izana; izan ere, horrela, gai horretan dagoen lege-be-tebeharra betetzen da eta laguntza-tresna hau formalki abiatzen da araudiak jasotzen duen bezala sistemak ondo funtziona dezan.

Egia da Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza egiteko bidetik ahalegindu dela zerrenda edo erregistro bat egiten, hain zuzen ere, prebentzio sistema gisa ziurtatutako erakunde espezializatu eta prebentzio sistemen auditoriak egiteko baimenduta erakundeena; hala ere, Euskadiko EGABek Irizpen honen xede den Sailaren ekimenak dakarren jauzi kualitatibo handia azpimarratu nahi du, hau da, benetako administrazio Erregistro bat sortzea eta arautzea, urteotako jardunak ezin bete izan duen zerbitzu bat eskaintzeko (ezagutza eta berme tresna gisa), eta erregistro horren bitartez herritarrei informazio ziurra eta sinesgarria emateko.

Erregistro bat sortu eta arautzearen alde abiatutako ekimenaren alde Euskadiko EGABek hartutako jarrera hau baino harago, adierazi behar dugu Dekretu Proiektuan jasotako testuak oso eduki teknikoak duela, eta laneko arriskuen prebentziarako tresnen eremu espezializatu baten gainean.

Horregatik, gure ustez, nahiz eta horren gaineko irizpena ematea nahitaezkoa ez izan, gomendagarria, komenigarria eta egokia izango litzateke, EGABek gogoeta orokorrago bat egin baino lehen, Dekretu Proiektuko alderdi teknikoak Laneko Arriskuen Prebentzioaren alorreko erakunde tekniko eta espezializatu batek aztertu eta ebaluatuko balitu, esate baterako, Osalanek, non partaide diren gizarte eragileen ordezkariak araua eztabaidatzeko aukera izango luketen araua proposatu duen administrazioarekin.

Amaitzeko, Dekretu Proiektua egiten eta tramitatzen esku-hartzen duten organoak jasotzen dituen Sarreraren azken zatian antzeman daitekeena aipatu behar da: ez du aholku-erakundeen aipamenik egiten, eta EGABi dagokionez, nahitaez esku-hartzen du, erakunde horren sortze eta arautze Legearen 3.1.b) artikuluan arabera. Beraz, gure ustez, beharrezkoa da honako esaldi hau sartzea Dekretu Proiektu honen Sarreraren azken paragrafoan "Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Gaietako Batzordea entzunda"; azkenean esaldi osoa honela geratuko dela:

*Horren arabera, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuak proposatuta, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Gaietako Batzordea entzunda, alde aurretik Lehendakariak onartuta eta **Gobernu Kontseiluak eztabaidatuta eta onartuta** 2007ko ko (e)(a)n egindako batzarrean.*

IV ONDORIOAK

Euskadiko EGABen ustez, egokia da Erregistro bat arautzeko ekimena abiatu izana, horrela lege agindu bat betetzen delako. Hala ere, edukiari dagokionez, EGABen ustez, Dekretu Proiektuak kontraste tekniko handiagoa behar zuen, OSALANen pare hartzeaz; izan ere, erakunde horren irizpena nahitaezkoa ez bada ere, EAEko erakunde-alorrean laneko arriskuen prebentzioari dagokionez erakunde tekniko eta espezializatua da.

Bilbo, 2007ko ekainaren 21a

O.E. Lehendakaria
Antxon Lafont Mendizabal

Idazkari Nagusia
Javier Muñecas Herreras